

Funtsezko elkarreak

Funtsezko sozietateei dagokionez, bazkide nagusiak guk izango gara, baina beste enpresen eta adituen laguntza baita ere behar izango dugu.

Alde batetik, *Imgmt* aplikazioaren sortzaileek, elkarre nagusia gara. Adibidez, Lidia eta Jurgi marketing-az arduratzen dira, arlo horretan nahiko onak direlako eta asko gustatzen zaielako; eta hauek zehaztuko dute ea beharrezkoa den ala ez gure produktuaren publizitatea egitea une zehatz batean. Aldiz, Ane eta Oier arlo informatikoan nahiko adituak dira, eta horregatik haiek aplikazioa sortzeko lehen urratsez arduratu ziren. Berriz, Andrea aplikazioaren diseinu orokorrak eta bilketak eta hitzarmenez arduratzen da, eremu artistikoan ona delako eta eztabaidazale izateko jaiola delako.

Bestalde, beste enpresen laguntza behar izan dugu gure aplikazioa jaiotzeko eta sustatzeko. Adibidez, Bilbon dauden hainbat dendekin kontaktuan ibili gara, batez ere janari- eta arropa-dendekin, eta hauekin akordio batera ailegatu gara: haien produktuen publizitatea egingo dugu diru kantitate baten truke. Horrela, elkarre boteretsu bat sortu dugu, zeinetan haiek ezagutzea lortzen dute eta, guk, aldiz, zorrak estaltzen laguntzeko dirua.

Elkarre honek ezinbestekoak dira gure ideia hazteko, batez ere guk etekinak lortzeko modu bakarra elkarre hauekin egindako akordioak izango direlako. Hauekin tratu batera ez ailegatzerakoan, ez dugu etekinik jasoko, eta orduan enpresak porrot egin dezake, zeren eta gure enpresaren diru-sarrerak beste enprekin egindako elkarreak eta negoziatioetan oinarritzen dira. Horregatik, gure elkarre- eta marketing-taldeak garatu eta zaindu beharko dugu.

Azkenik, hauek ez dira hornitzaileak izango, baizik eta langileak, baina informatikari baten eta "I+G+B"-z arduratuko den aditu baten laguntza beharko dugu gure aplikazioaren segurtasuna, kalitatea eta indarra aseguratzeko, nola marketing-arekin Jurgi eta Lidia laguntzeko.

Azaldutako pertsona eta enpresa guztien laguntzarekin, gure aplikazioaren sustapena positiboa izango dela esan ahal dugu.